

Jesusen Bihotza Mundaiz Ikastetxea

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

DBH ETA BATXILERGOA

2024-25 IKASTURTEA



Sagrado Corazón Mundaiz

Guraso agurgarriok:

Honen bitartez 2024-2025 ikasturterako ikastetxean aurreikusita ditugun eskolaz kanpoko jardueren eskaintza jakinarazi nahi dizuegu.

Lacunza: Ingelesa (DBHko 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara)

Mundaiz eta Lacunza akademia ados jarri dira eskolaz kanpoko ingeleseko klaseak antolatzeko eta kudeatzeko. Kalitatezko irakaskuntza irakasle natiboekin eskaintzen da, ezagueraren hobekuntza esanguratsua izateko eta trebetasun linguistikoak bermatzeko asmoz. Informazio gehiagorako begira ezazue [esteka](#) honetan.

Lacunza

Gaurkotek (DBH 1.-2. mailak)

GaurkoTekeko Robotika eta Teknologia eskolaz kanpoko ikastaroan, STEAM filosofiaren pean, robotika, bideojokoen sorkuntza, programazioa, 3D modelajea, diseinu grafikoa, bideo-edizioa, elektronika... landuko ditugu pentsamendu konputazionala, arazo ebazpena, sormena eta talde-lana sustatuz. Hau guztia ondo pasatzen dugun bitartean!

Proiektuka eta taldeka (2-3 ikasle) lan egiten dugu.

"Ikasgela birtual" pribatu bat dugu, ikasgelaren egitura eta jarraipena (etxetik ere) egiteko. Ez dute material berezirik behar, ezta aurretiazko ezagutzarik ere.

Kalitate bikaineko materiala erabiliz, maila bakoitzeko 7 unitateko programa oso bat garatu



dugu, bakoitza 4 saiokoa.

Prestatu zure seme-alaba etorkizunerako!

Margolaritza (DBH 1.- 4. mailak)

Marraskia eta pinturaren bitartez, haurrak bere ahalmen sortzailea garatzen ikasten du. Eredu adierazkorra izateaz gain, jarduera artistikoaren bidez, haurrak keinuak, espazioa, formak, koloreak ezagutzen eta erabiltzen ditu, behaketaren sena garatzen du eta eskematizatzeko gaitasuna zorrozten du.



Sagrado Corazón Mundaiz

Hockey (DBHko 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara)

Patin hockeya bost jokalariz osaturiko bi talderen (zelaiko lau jokolari eta atezain bat) arteko lehia datzan kirola da. Zelaia hesiz inguratuta egon behar du, izkinak borobilduak eta zelai bakoitzean porteria bana egon behar du. Jokalariak lau gurpil paraleloz osaturiko patinen bidez mugitu behar dira eta sticka edo zurezko makil kurbatu baten bidez kautxuzko pilota bat gidatu behar dute, hau aurkako taldearen porteria sartzen saiatuz.

Hockey Mundaiz Klubak 40 urteko ibilbidea du eta familia bihurtu da non jokolari guztientzat bizikidetasuna eta adiskidetasuna oinarri bihurtu diren.

Paddle surf (DBH 1.- 3. mailak)

Badago modu hoberik Urumea ibaiko urak zeharkatzea baino? Ikastaroaren garapenean teknika ikasi eta hobetuko dugu sup-eko ohol mota ezberdinetan. Stand up paddle-a izango da egingo dugun kirola beti giro ludiko batean. Irakaskuntza bermatua egongo da.



Xake (DBH 1.- 4. mailak)

XAKE MATE aspertzeari!!

Ikasi eta disfrutatu milurteko jolas honekin.

Adimena eta irudimena garatu.

XAKEA, zientzia-kirolarik nagusia.

Anima zaitetz eta proba ezazu!



Euskal Xake Eskola

Izar Leku kluba: Gimnasia erritmikoa (DBH 1.- 4. mailak)

Gimnasia erritmikoa musika-koordinazioa eta erritmoa dotoretasunarekin eta tapizaren gaineko trebetasunarekin konbinatzen ditu. Jendaurrean egindako ariketen aurkezpenak arrakasta du entrenamendu-ordu askoren ondoren. Baina kirol honengatik pasioak sakrifizio guztiek gutxi irudi dezatela lortzen du.



Kluppy: mekanografia (DBH 1.- 4. mailak)

KLUPPY Learn by playing ideia garbi batekin jaio da: idazketa digitalera iraultza ekartzea. Hori dela eta, mekanografia formatu guztiz berritzaile batean eraberrituan ekarri dugu.

KLUPPY
LEARN BY PLAYING



Sagrado Corazón Mundaiz

EBALUAZIO SISTEMA

Eskolaz kanpoko jardueren ebaluazioa egingo da. Hiruhilekoaren bukaeran irakasleak ikaslearen txosten pertsonala osatuko du eta gurasoei bidaliko die.

JARDUEREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA

Jarduera bakoitzaren ordutegiak esteka honetan topatuko dituzue: [ordutegiak](#).

Jarraian jarduera bakoitzaren hasiera eguna duzue:

- **Ingelesa ([Lacunza](#))** irailaren 9ko astean hasiko da.
- **Margolaritza, Izar Leku eta Hockey** irailaren 16ko astean hasiko dira.
- **Gaurkotek, xake, Paddle surf-a eta Kluppy** urriaren 1eko astean hasiko dira.

Kirol jarduera batzuk bere egutegi propio izaten dute. Informazioa familiei dagokionean helaraziko zaie.

IZEN-EMATEA, PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

Esteka honetara zuzendu jarduera bakoitzaren prezioak topatzeko: [prezioak](#).

Beste esteka honetan izen-ematea egin daiteke: [izen-ematea](#).

Izen-emate epea: abuztuaren 26tik irailaren 6ra.

Oro har, ikasturtearen prezio osoa 8 kuotatan banatuko da (urritik ekainera bitarte). Kuota banketxez pasatzen den ikastetxeko hilerokoari erantsiko zaio.

Jarduera batzuk berezko ordaintzeko modua dute.

Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. Behin jarduera hasita, ez da baxarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko.

ARDURADUNAK ETA IRAKASLEAK

Coordinadora:	Patricia Tejero (ekj@gmundaiz.com)
Lacunza:	Marina Scifo (marina.scifo@lacunza.es)
Gaurkotek:	Mikel Lizarraga (gaurkotek@gmail.com)
Pintura:	Jose Manuel Brancussi (jose@brancussi.es)
Club Izarleku	Itziar Beluche (itziarbeluche.ritmica@gmail.com)
Ajedrez:	Iñigo Argandoña (xakeskola@gmail.com)
Hockey:	Daniel Alonso (dani@gmundaiz.com)
Kluppy:	Ander Urquiza (a.urquiza@kluppy.com)
Paddle surf:	Ibon Aguirrezabala (ibon@rctss.com)



Sagrado Corazón Mundaiz

ARAUDIA

- Taldeek **ikasle-kopuru mugatua** izango dute eta izen-ematearen orriaren arabera osatuko dira. Bajak **itxarote-zerrendaren ordenaren arabera** osatuko dira.
- Izena eman duten ikasle kopurua taldea osatzeko nahikoa ez bada, jarduera ez da martxan jarriko eta gurasoei jakinaraziko zaie.
- Ikasleek ezin izango dute izena eman asteroko bi orduko den eta ordutegi-interferentziagatik edo beste zirkunstantzia bategatik egun batean soilik joan daitekeen jardueran.
- Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. Behin jarduera hasita, ez da bazarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko.
- **Asistentzia eta puntualtasuna.** Asistentzia nahitaezkoa da. Hutsegiteak eta puntualtasun faltak errepikatuz gero, gurasoei jakinaraziko zaizkie eta berriro gertatuz gero, jardueran baja arrazioa izan ahal izango dira.
- Ikasle guztiak **ikagela garbiak mantentzen, klase-altzariak zaintzen eta bere ikaslagunen eskola-materiala errespetatzen** saiatuko dira. Arratsaldean ikasleak bere klaseetara itzuliko direnean kexak eta ustekabekoak saihestuko dira.

Agur bero bat.

Patricia Tejero



Donostia-San Sebastián, 2024ko ekainaren 10a